

HITZALDIA

ZER AGERIAN ETA ZER EZKUTUAN FERNANDO AMEZKETARRAREN BIOGRAFIAN

1821ko San Jose eguna berezia izan zen Amezketan. Liberalen indarrak puri-purian zeuden garai hartan. Egoera político berria zen hura guztientzat. Baita, Amezketan ere.

Liberalen alde lana gogotik egindakoen artean, gure herrian, erretore jauna izan zen, hau da, don Juan Inazio Urretabizkaia. Egun hartan Amezketako plazan despotismoaren lurra emate zeremonia egin zen Amezketako plaza: zerraldo, kandela, turiferario eta intzentsu, kanta eta errezo... Ez dirudi don Juan Inaziok liturjia horretan, zeremoni horretan eginkizun handiak izan zituenik, baina bistakoa zen bera zegoela ospakizun haren atzean; bera zela xaxatzaile, su-piztaile. Hirurteko Liberala amaitu zenean, zigortu ere egin zuten Amezketako erretore jauna San Jose egunez egindakoarengatik.

Garai hartan, eta batez ere mendia ondo baldin bazetorren, San Josetarako, artzainek artaldeak Aralarko larreetara eramateko ohitura izaten zuten. Beraz, non ote zegoen urte hartan gure Fernando Amezketarra? Ez dakigu. Amezketako plazan? Beterrian bere artaldearekin? Elordiko txabolan, Aralarren?

Izan ere, Fernandoren biografia bat egiterakoan zertzelada asko eta asko gaur ezagutzen ditugu. Esate baterako, 1821eko negu-udaberrian itxurazko artalde baten jabe zela. Hori agirietan dator. Baina gainerako puntu asko eta asko ez gara agerian jartzeko gauza izan. Horregatik, ahalegintxo bat egingo dut bere biografiako kontu jakinak berritzeko, eta ezkutuan daudenak azaleratzeko eta, ahal den neurrian, hipotesi zenbaiten gainean ozenki ausnarrean egiteko.

Ekin diezaiodan lanari.

GURASOAK.

Aita Martin Jose Bengoetxea Adunan jaiotakoa zela badakigu. Ama, Josefa Antonia Altuna, amezketarra. Nere ustez, *Torrea* esaten zitzaion etxean jaiotakoa zen Josefa Antonia.

Garaiak etorri baino lehen lardaskan ibili eta, haurdun geratu zen Josefa Antonia, eta Adunan ezkontzea erabaki zuten Martin Josek eta Josefa Antoniak, eta baita elkarri baiezkoa eman ere 1764ko abuztuaren 13an Adunako elizan. Handik bi hilabete eskasera jaio zen Fernando Amezketan. Non jaio ote zen? Espilla-saletxen beti uste izan den bezala? Besteren batean?

Nere hipotesiak *Torrea* esaten diogun etxearen aldeko apustua egiten du.

SENIDEAK.

Bi bider ezkondu zen Martin Jose Bengoetxea. Fernandoren ama propioarekin hamar seme-alabarekin. 38 urtetan alargundu eta 24 urteko Maria Ignazia Karrerak beste bost eman zizkion. Guzti-guztiak Adunan jaio ziren.

SENDOTZAKO SAKRAMENTUA FERNANDOK HARTU

Amezketan hartu zuen, 1771ko ekainaren 27an. Zazpi urte zeuzkan Fernandok, eta orduko erretoreak oker txiki bat egin zuen paperak betetzerakoan:

Bernardo de Bengoechea hijo sexmo de Martin de Mrn de Bengoechea y Josepha de Altuna.

FERNANDOREN EZKONTZA 1790AN

Sendotzako sakramentua hartu eta isilaldi bat daukagu Fernandoren biografian. Aiton-amonen babesean, anparoan bizi izan ote zen? Beste familiaren batean, morroi moduan, garai hartan egiten zen bezala? Ez gara gauza izan Fernandoren bizi-garai hau argitzeko. Buruntzuzin eta Arritzagako meategian lanean ibili ote zen? Litekeena, baina ez daukagu hori esaten digun agiririk.

Jakin badakigu ordea Amezketan ezkondu zela 1790eko apirilaren 25ean. 26 urte zeuzkan eta Maria Josefa Sagastumek, bere emazteak, 18. Fernando eta Maria Josefak ere ez zuten bederatzi hilabeteri begiratu beharrik izan lehenengo semea mundura ekartzeko. Bai, ezkondu eta handik zazpi hilabete ingurura entzun zuten Martin Joxe txikiaren lehen nigarra, abenduaren 4an.

Hamar-seme alabarekin aberastu zuten Amezketako demografia.

KONBENTZIOKO GERRA ZELA ETA, ARMAK HARTZEKO PREST

1793an, Amezketatik Irungo mugaldera joateko prest egon behar zutenen artean zegoen gure Fernando. Ez dugu uste joan zenik.

XVIII.MENDEAREN AZKENETAN, MEATZARI ARALARREN

1732tik aurrera lana asko egin zen kobre-mea azaleratzeko Aralarren, XVIII.mendean. Langile asko ibili zen mendi-mendiko meategi hartan. Gora behera asko izan eta, gainbehera egin zuen hango lantegiak mendearen amaierarekin. Azken egunetara arte lanean aritu zen Fernando.

FERNANDOREN BERTSO JARDUNAK 1800 ALDERA

Fernandoren biografia egiterakoan, Azpeitia (1799), Billabona eta Tolosako (1800) aipatzen ditu Antonio Zavalak bere liburu bikainean. Orduantxe egongo zen Fernando ere bertsoetan egiteko moduan.

FERNANDOREN GAINBERAKO LANBIDEAK

-1801ean, aldi baterako gutxinez, lantegi berria izan zuen Fernandok. Amezketako mailoa zaintzeko ardura hartu zuen.

- 1803an, hamar ardi erosi zituen.
- 1808an, 60 ardiren jabe egin zen.
- 1819an, beste 50 buru hartu zituen.

Beraz, eta inolako zalantzarik gabe esan daiteke, Fernandoren azken hogeitaz artzaintzari loturik eman zituela.

HIPOTESI BATZUK

Bizpauru puntu dauzkagu argitzeke, besteak beste. Non bizi izan ote zen, Amezketako zein etxetan gure Fernando? Zertatik hil ote zen? Nolakoa ote zen? Zenbaitek pentsatu izan duen bezain xelebrea? Edo arlotea? Eta alferra?

Amezketan, 2014ko martxoaren 19an
Joxe Mari Oterminen